# Otso bihozbera

Geoffroy de Pennart

# Irakurketa-fitxak
# 2. zikloa




Bretainiako hiru eskola publikotan
landua izan den ustiapen pedagogikoa
Yves-Marie Moal-ek bretoieratik euskarara itzulia

ikas
euskal pedagogia zerbitzua

# Otso bihozbera

## Irakurketa nola landu albumetik abiatuz, bigarren zikloan

### Lehen entsegua

Geoffroy de Pennart-en obra hau, TES, Bretainiako pedagogia zerbitzuak argitaraturik, irakurtzen laguntzeko fitxategi hau proposatua zaizue. Lantalde baten emaitzak biltzen ditu. Hemen proposatzen diren jarduerak eta ariketak Rennes-ko akademiako eskola elebidunetako irakasleek probatu zituzten beren ikasgeletan, 2001-2002ko ikasturtean.

### Lan hau ez da osatua :

*Otso bihozbera* kondairari dagozkion oharpen literarioak ez dira fitxategi honetan aztergai eta beraz haurrek ez dute ezaugarri literarioen estimatzeko paradarik. Bestalde, irakurtze prozesuan aurkitzen diren urrats zenbait ez dira landuak izan. Hori guzia bi arrazoirengatik :

– denbora eskasa (4 egun), geletan bildu emaitzen koordinatzeko eta egituratzeko,
– usaia falta ere, komunikazio elektronikoaren bidez bakoitzaren ekarpena obra osatu batean kokatzeko.

Album irakurketaren lantzeko, Laurence Dupuch-ek *Le loup sentimental*, *enseigner autrement la lecture avec un album* idatzi zuen. Isabelle de Noëll eta Jean-Yves Laurichesse-k aldiz *Mitcha*-ri buruz (G. Solotareff eta Nadja-rekin) lan paregabea egin zuten. Fitxategi honen osatzeko ikastresna horien baliatzea gomendatzen dugu.

### Irakurtzeko gutizia zabaldu

Soinuek eta letrek ez dute beren baitako erranahirik. Haien eginbide bakarra hitzen sortzea baizik ez da. Hitz katearen bizigabeko elementu batzuk dira. Testuak dauka bakarrik erranahia eta testuaren osatzaile dira.

Soinu eta letren juntatzeko parada baizik eskaintzen ez duten testu edo idazkiak, erran nahi baita mamirik gabeko testuak, interesik gabekoak, hots irakurgaitzak direnak, baztertu behar direla erran genezake.
Albuma da haurrei proposatzen ahal diegun euskarri aberatsenetarik bat. Irakurtzeko nahikeria ematen die, egiazko irakurle jarrera haien baitan piztuz.

Zergatik ?

– **Istorio bat osatzen duelako**, hastapenarekin, amaierarekin, emeki-emeki haurrak bereganatzen dituen mugimenduekin eta logikarekin. Jakin dezagun istorio batek, irakurtzeko gutizia hazten duela nolazpait haurraren izpirituan.
– **Obra literario bat delako**, hizkuntza aberatsarekin, erran nahi baita idatzia den hizkuntza baten hiztegia eta joskera baliatuz.
– **Bi hizkuntzekin ari delako irakurlea** : hizkuntza bat besteari josiz, idatzizkoa eta irudizkoa. Irakurtzeko gutizia bultzatuko dute eta bi kodeek elkar lagunduz irakurketa erraztuko.

## Testu literarioak ulertu

Garrantzitsuak eta aberatsak, hots albumak zinez beharrezkoak dira haurrentzat. Ez dira ortografiaren lantzeko sistematikoki baliatu behar. Albumaren lantzeak dituen ekarpen nagusiak hauek dira : irakurtzeari erranahia (adiera) ematea eta sorkuntza (kreatibitatea) akuilatzea.

Irakurleak, liburu baten balio literarioa bereganatuko du jada ezagutzen dituen liburuen artean deskubritzen duen obra berria kokatzen kausitzen badu. Liburu zerrenda hori pixkanaka pixkanaka luzatuko du.
Haurrak jadanik ezagutzen dituen obrekin, irakasleak ikaslea loturen eta harremanen egiten bultzatuko du, izan dadin hizkuntza batean ala bestean.
Transliteratura eremuan gaude hor, eta haurraren kultura literarioa nolazpait lantzen dugu.
*Otso bihozbera* albuma irakurtzean, *Txanogorritxu, Pello, Erpurutxo eta haren anaiak, hiru xerrikumeak, Ahuntza eta pitikak* bezalako ipuin klasikoen arteko harremanak arras argi dira (haurtzaroaren ondare literarioak). Ez badira ipuin horiek guziak oraino ikasgelan ezagutuak horien kontatzeko parada ere izanen da.

*Otso bihozbera* istorioan atzematen diren ipuin klasiko horien oihartzunaz gain, hona beste irakurketa batzuen egiteko parada :
– Geoffroy de Pennart-en beste obra zenbait : *Otsoa itzuli da !, Otsoen bazkaria* (Edl).
– Beste otso istorio batzuk (otso gisakoak edo gaixtoak) : *Loulou* (Grégoire Solotareff), *Marlaguette* (Marie Colmont, Gerda Muller), *L'ogre, le Loup, La Petite Fille et le gâteau* (Philippe Corentin)…

## Hitz idatziak ezagutu

Testu ofizialeen arabera, 2. zikloaren hasieran, haurrek hitz idatziak beren osotasunean ezagutzen trebatu behar dute. Oroimen lan horren egiteko, hitz bilduma baten egitea beharrezkoa da ikasgelan.
Lehen bilduma horretan ez dira nolanahiko hitzak izanen. Hitz horien idatz moldeaz jabetu aitzin, haurrek ahozkoan entzun, ulertu eta erabili behar dituzte. Hots, haurrek gehienik baliatzen dituztenak izanen dira : gelako haurren izenak bistan dena, egunak, koloreak, adjektiboak, hots, testuetan ere usu agertzen direnak hala nola adberbioak (leku-denborazkoak), eguneroko bizian erabiltzen diren aditzak, juntagailuak, izenondoak...

Hitzen idazkeraren menperatzeko bi bide badira :

– Bide sintetikoa, ahoskeran oinarritua : letrak eta silabak konbinatuz, jadanik eza-

gutzen dituzten hitzekin (*haien irudi fonetikoa edo grafia*) elkarketak sortzen trebatuko dira haurrak (bide fonografikoa deituko dugu bide hau). Azken helburua edo, hobekiago erran, hitzaren menperatzeko urrats gorena sistema grafofonologikoaren menperatzea da. Ahozko silaben eta idatzizkoen arteko desberdintasun ugariez gain, balio fonologikorik gabe diren seinale semantikoak edo etimologiarekin zerbait ikustekorik duten seinaleak (edo fonologiko balio desberdina dutenak) atzeman daitezke. Hortakotz, beharrezkoa da hizkuntza baten ortografia batua menpera dezaten haurrek, hitz egiteko (ahozkoan) moldeak ugariak direlako. Horretako ere bigarren bidea haurrek baliatu behar dute eta honela azaltzen dugu :

– Oroimen grafikoan oinarritzen den bidea : mintzaera, idatzi moldean ezagutua denean eta hitzen erranahia (adiera) denbora berean menperatua delarik (irakurtze grafikoa deitua da bigarren molde hori). Bistan dena ez dugu bide hori irakurtzen diren eta **idatzi behar** diren hitz guziei zabaltzen ahal baina hitz multzo hori baliagarria izanen da ohar grafofonologikoak egiteko.

Testu ofizialek bi bide horien garrantzia onartzen dute. Irakasleek ez dute bi bide horien artean bat edo bestea lehenetsi edo baztertu behar, baina biak baliatu behar dituzte irakurketa ikaskuntzaren behar bezala gauzatzeko.

**Haurrari album baten irakurtzea proposatzen diogunean, bide zuzena da ardurenik baliatzen dena. Kasik bide bakarra dela erran dezakegu.**
Hortakotz, ariketa anitz aurki daitezke hemen hitzak beren idazmolde osoan ezagutzeko.

## Hitz sailak ezagutu (lehen sailkapena)

Albumaren ustiapenaren egiteko baliatuko ditugun etiketekin hitz gordailu ederra osatuko dugu. Beharrezkoa zaigu ere egitea :
- hitz etiketa zorro ttipi bat haur bakoitzarentzat ;
- arbelean erabiltzeko etiketa handiak. Hauek lan kolektiboetan baliatuko dira (perpausak berregin edo perpaus berriak egin) ;
- afixak, ikasgelako ormetan ezarriak, adieraren arabera hitzen sailkapena erakutsiz (koloreak, abereen izenak...), edota funtzioaren arabera ere (aditzak... ). Berantago, emeki-emeki berezitasun grafikoak kontutan hartuko ditugu (molde grafiko baten balio fonologiko ezberdinak).

**Hitzak, funtzio gramatikalaren arabera sailkatzen ikasi** : izen arruntak, adjektiboak, atzizki zenbait, sinonimoak, erran nahi baita gauza baten izendatzeko molde desberdinak, norekin eta nori buruz edo zeri buruz hitz egiten den ulertaraziko dutenak : otsoa, Lukas, nere semea, hura, ni, (beste hitzak aditzean agertzen dira : *dut, ditut, diot*, etab. ...).

## Ortografiaren arauak menperatu

Hitzen ezagutza prozesuan, balioaz eta funtzioaz gain, grafiaren aldaketak gero eta xehekiago ezagutu beharko dituzte haurrek hauen komunztadurari ohartuz, eta hitz multzoaren balio fonologikoa edo semantikoa ezagutuz. Puntu hau honela agertzen da azken testu ofizialetan :

“– Hizkuntza idatziaren kodearen oinarriak ulertuak izan daitezen ;
– Erranaldiaren segmentazioan aritu, elementu ttipieneraino joanez ;
– Ortografia menperatu.”

**… beste urrats bati buruz**

Isabelle de Noëll eta Jean-Yves Laurichesse-k ohartarazten digute :

*“*Arau horiek haurrek topaketa batean bezala edo errekontruz aurkitu behar dituzte eta ez dute izan behar irakasleak prediku aulkitik iragartzen dituen lege arrotz batzuk. Soinuaren eta grafiaren arteko oharpenetan oinarritzen den erakaspena ez da batere eraginkorra izanen elementu horien bereizte gaitasuna haurrek ez badute oraino eskuratua eta baliatua”.

Bestalde haurrak bere baitarik, testu bat aurkitzean ortografiari buruz egin oharrak kontutan hartzen ez bagenitu kaltegarria liteke. Hitzen arteko komunztadurari ohartarazi behar dira haurrak jakinez eginen dituzten oharrak gero eta zehatzagoak izanen direla.

Dena den, helburu horiek ez dute lehentasunetan izan behar haurrei proposatzen ditugunean. Isabelle de Noëll eta Jean-Yves Laurichessen iritziarekin akort naiz diotelarik : “*CP mailan ortografiaren egituratzeko paradarik ez dugu hemen eskaintzen baina albumen irakurtzeko aukera ematen. Garai edo funtzio horiek bereizi behar direla uste dugu. Jakin dezagun idatziaren menperatzearen prozesuan ezinbesteko funtzio bat dela ortografia, argiki, eta behar den tenorean tratatua delarik.”*

Jean-Do Robin,
Bretainiako hizkuntzaz eta kulturaz arduratzen den aholkulari pedagogikoa

## Bibliografia


De Noëll Isabelle, Laurichesse Jean-Yves, *Enseigner autrement la lecture avec un album*.

Dupuch Laurence, *Enseigner autrement la lecture avec un album*.

Lepri Jean-Pierre, *L'album, source d'apprentissages*.

Robin Jean-Dominique, *Bilinguisme scolaire équilibré et/ou bilingualité équivalente de l'enfant ? L'apprentissage de la lecture au cœur du débat*.

*Raconte-moi avec des albums*, CNDP-ko katalogoa, 2002.

## Otso bihozbera

# CP mailako irakurketa-fitxak

Armelle Jouanigot, Kristen Prad

## Otso bihozbera

# Istorioko pertsonaien marrazkiak eta izenak

Lehen orrialdeetan agertzen diren albumeko pertsonaien izenak eta irudiak beharren arabera baliatuko ditu ikasleak albuma landu arau.

# Istorioko pertsonaiak

Fitxa hau beharren arabera fotokopia, ikasleen liburuxkan ezartzeko
edota handitu eta, ikasgelako murruetan agertzeko.

## Lukasen familia



**ama**



**Lukas**



**aita**



**amatxi**



**aitatxi**



**hiru anaiak**

# Beste pertsonaiak



**ahuntza eta pitikak**



**Txanogorritxu**



**Pello**



**hiru xerrikumeak**



**haur-jalea**



**Erpurutxo**

| | | |
|---|---|---|
| LUKAS | AITA | AMA |
| Lukas | aita | ama |
| Lukas | aita | ama |

| | | |
|---|---|---|
| AITATXI | AMATXI | HIRU ANAIAK |
| aitatxi | amatxi | hiru anaiak |
| aitatxi | amatxi | hiru anaiak |

| | | |
|---|---|---|
| TXANOGORRITXU | ERPURUTXO | HAUR-JALEA |
| Txanogorritxu | Erpurutxo | haur-jalea |
| Txanogorritxu | Erpurutxo | haur-jalea |

| | | |
|---|---|---|
| AHUNTZA | HIRU XERRIAK | PELLO |
| ahuntza | hiru xerriak | Pello |
| ahuntza | hiru xerriak | Pello |

# Familia jokoa
# istorioko pertsonaiekin

✐ ikaslearen fitxak : 16-19. or.

## Helburuak

Istorioaren pertsonaien izenak ikasi.

## Zer jarduera ?

Karta jokoa “Familia jokoa” deituko dugu eta istorioko pertsonaiekin eginen. Hiru pertsonaia, hiru neurritan (ttipia, artekoa, handia) eskuratu behar ditu jokalariak familia baten osatzeko.

## Nola egin ?

Hiru kartako familiak izanen dira.
Kartak kartoi puxka baten gainean kolatu eta pikatu.

## Ikasi

Adjektiboak : *handi, ttipi, arteko*
Izenak : *otsoa, ahuntza, xerria, haur-jalea*
Aditz formak : *Ez dut, badut, emaidazu*
……

## Urraspidea

### Talde lana

- Kartak nahasi eta jokalariei banatu.
- Gelditzen diren kartak denen karta metan ezarri.
- Hasten den jokalariak horrela dio :
  *– X, ............ emaidazu.*
- X-ek, erantzuten du :
  *– Badut, horra.* Edo :*– Ez dut, karta metatik hartu behar duzu.*
- Jokoa bukatua izanen da familia guziak osatuak izanen direlarik.



**HAUR-JALE HANDIA**



**ARTEKO HAUR-JALEA**



**HAUR-JALE TTIPIA**



**ERPURUTXO HANDIA**



**ARTEKO ERPURUTXO**



**ERPURUTXO TTIPIA**



**XERRI HANDIA**



**ARTEKO XERRIA**



**XERRI TTIPIA**



**PELLO HANDIA**



**ARTEKO PELLO**



**PELLO TTIPIA**



AHUNTZ HANDIA



ARTEKO AHUNTZA



AHUNTZ TTIPIA



NESKA HANDIA



ARTEKO NESKA



NESKA TTIPIA



**OTSO HANDIA**



**ARTEKO OTSOA**



**OTSO TTIPIA**

# Nor da hau ?

✐ ikaslearen fitxak : 21-22. or.

## Helburuak

Pertsonaien izenen irakurtzen ikasi.

## Zer jarduera ?

Pertsonaien izenen irakurtzen trebatzeko, marrazki bakoitzari bere etiketa eman. Lukasen familiatik hasi ; gauza bera egin istorioko beste pertsonaiekin. Talde lana eta banakako lana.

## Nola egin ?

Izenak daramatzaten etiketak aizturrez moztu eta kolatu.

## Materiala

- Pertsonaien irudiak (21. eta 22. or. ikus) A3 formatuan
- Etiketak izenekin
- Aizturrak, kola eta iman pezak arbelean lan egiteko

## Urraspidea

### 1 Lukasen familia...

#### Talde lana

- Irakasleak istorioa berriz irakurriko du.
- Ikasleek istorioaren pertsonaiak xerkatuko dituzte (ikus 21. eta 22. or.). Orria, A3 formatukoa, arbelean emana izanen da.
- Izen guziak ahoskatuko dituzte haurrek.
- Izenen etiketak nahas-mahas dira ondoan (21. eta 22. or.).
- Pertsonaia bakoitzarentzat irakasleak erranen du :
  - *– Nor da ?*
  - *– **Y** da.*
  - *– Atzeman ezazu **Y** izena duen etiketa.*
- Haurrak etiketa kolatuko du arbelean den irudi egokiaren pean.

#### Banakako lana

- Irakasleak istorioa berriz irakurriko du.
- Irakasleak galdeginen du :
  - *– Erakuts iezadazu **aitatxi**, **ama**, …*
- Haur bakoitzari A4 formatuko orri berri bat emanen zaio (ikus 21. or.).
- Etiketak moztuko ditu eta irudi egokiaren pean kolatuko.

### 2 Lukasek bere bidean gurutzatu dituen pertsonaiak...

**(gaineko urraspideari jarraituz)**

#### Talde lana

#### Banakako lana

# Nor da?

**Etiketak inguruz-inguru motz eta dagokien irudiaren pean kola.**













| | | |
|---|---|---|
| **amatxi** | **aita** | **aitatxi** |
| **hiru anaiak** | **ama** | **Lukas** |

# Nor da?

**Etiketak inguruz-inguru motz eta dagokien irudiaren pean kola.**













| | | |
|---|---|---|
| **Erpurutxo** | **hiru xerrikumeak** | **ahuntza eta pitikak** |
| **haur-jalea** | **Pello** | **Txanogorritxu** |

# Istorioaren ordena

✐ ikaslearen fitxak : 24.-27. or.

## Helburuak

Pertsonaiak ezagutu istorioan agertu arau.

## Zer jarduera ?

Lukasen familiakoen irudiak orrialde batean itsatsi, istorioaren ordenari jarraituz. Berdin egin ondotik heldu diren beste pertsonaia guziekin.

## Nola egin ?

Lana pertsonaien iruditik abiatu eta pertsonaien izen idatziekin segitu.

## Materiala

- Arbelean ezartzeko afixak (24., 25., 26. eta 27. or., A3 formatukoak)
- Pertsonaien irudiak irakasleak pikatuak
- Fitxak haur bakoitzarentzat
- Aizturrak, kola eta iman pezak arbelean ezartzeko

## Urraspidea

### 1 — Lukasen familia... (ikus 24.-25.or.)

#### ▶▶ Talde lana

- Irakasleak istorioaren hastapena irakurriko du.
- Lukasen familiako irudiak erakutsiak izanen zaizkie haurrei.
- Afixa (24.-25. or., A3 formatukoak) arbelean ezarri eta haurrei galdetu :

  Irakasleak :– *Zer ikusten duzue afixa honetan.*  
  Haurrek : – *Laukiak eta zenbakiak.*  
  I : – *Irakur zenbakiak.*  
  H : – *Bat, bi...*  
  I : – *Zergatik badira sei zenbaki eta sei lauki ?*  
  H : – *Lukasen familiaren jende kopurua baita.*  
  I : – *Nor ikusten dugu istorioaren hastapenean ?*  
  H : – *Lukas.*  
  I : – *Laukian ezarrazue Lukas.*
- Haur bat arbelera joaten da.

#### ▶▶ Banakako lana

- Fitxak (24.-25. or., A4 formatukoak) haurrei emanak izanen zaizkie lanean bakarrik ar daitezen :
  - Irudiak moztu.
  - Leku egokian kolatu.

### 2 — Lukasek bere bidean gurutzatu dituen pertsonaiak... (ikus 26.-27. or.)

**(gaineko urraspideari jarraituz)**

- Lehen jardueratik landa, haurrek lasterrago ulertuko dute bigarrena.

  Irakaslearen lehen galdea : – *Nor aurkitu du Lukasek bere bidean ?*  
  Beste galdea : – *Nor aurkitu du Lukasek ondotik ?*

#### ▶▶ Talde lana 26.-27. or., A3 formatukoa

#### ▶▶ Banakako lana 26.-27. or., A4 formatukoa

# Istorioaren ordena bilatu

Lukasen familiaren irudiak inguruz-inguru motz eta ordenan kola.

1

2

3

4

5

6

# LUKASen familia

**Irudiak inguruz-inguru motz.**













# Istorioaren ordena

Lukasek bidean ikusi dituen pertsonaien irudiak inguruz-inguru motz eta ordenan kola.

1

2

3

4

5

6

# Beste pertsonaiak

Irudiak inguruz-inguru motz.













# Istorioaren ordena

## beste pertsonaien izenei jarraituz

✐ ikaslearen fitxak : 29.-32. or.

### Helburuak

Lukasek zein ordenatan gurutzatu dituen pertsonaiak atzeman.
Idazkera kurtsiboan eta eskriptoan trebatu.

### Zer jarduera ?

Lukasen familiakoen izenak orrialde batean itsatsi, istorioaren ordenari jarraikiz.
Berdin egin ondotik heldu diren beste pertsonaia guzien izenekin.

### Nola egin ?

Izenak landu irudien laguntzarik gabe.

### Materiala

- Izen etiketak bi moldeetan idatziak
- Fitxak haur bakoitzarentzat (ikus 29., 30., 31. eta 32. or. )
- Aizturrak, kola eta iman pezak arbelarendako

### Urraspidea

**1 Lukasen familia... (ikus 29.-30. or.)**

#### Talde lana

- Etiketak moztu eta bi ontzi ttipitan ezarri, letratipoen arabera (29. or.).
- Irakasleak istorioaren hastapena irakurriko du.
  – *Nor ikusten dugu lehenik ?*
  – *Lukas.*
  – “*Lukas” etiketak xerka ditzagun !* (bi idazkeretakoak)
- Haur batek Lukas izena atzeman behar du ontzi batean (idazkera eskriptoa), bigarren haur batek berdin eginen du beste ontzian (idazkera kurtsiboa) etab.
  – *Nor ikusten dugu ondotik ?*
  – *Aita.*
- Berdin egin familiako kide guzientzat.

#### Banakako lana

- Jarduera fitxa haurrei banatu.(30. or.)
- Haurrek fitxari so egiten diote.
  – *Zer ikusten dugu ?*
  – *Lukasen familiakoen izenak ordenan sailkatuak, lauki hutsak eta idazkera kurtsiboko etiketak.*
  – *Zer eginen da ?*
  – *Behereko etiketak moztu eta besteen parean ezarri.*

**2 Lukasek bere bidean gurutzatu dituen pertsonaiak... (ikus 31.-32. or.)**
**(gaineko urraspideari jarraituz)**

| | |
|---|---|
| Irakaslearen lehen galdea : | – *Nor aurkitu du Lukasek bere bidean ?* |
| Beste galdeak : | – *Nor aurkitu du Lukasek ondotik ?* |
| | – *Haur jalea.* |
| | – *Haur jalearen etiketak atzeman ditzagun.* |

#### Banakako lana

31.-32. or. A4 formatukoa

# Istorioaren ordena

## pertsonaien izenekin

Etiketak motz.

| Idazkera eskriptoa | Idazkera kurtsiboa |
|---|---|
| **Lukas** | *Lukas* |
| **aita** | *aita* |
| **ama** | *ama* |
| **aitatxi** | *aitatxi* |
| **amatxi** | *amatxi* |
| **hiru anaiak** | *hiru anaiak* |

# Istorioaren ordena

## pertsonaien izenekin

Ezker aldeko zutabean, izenak liburuan bezala idatzirik ageri dira.
Behereko etiketak motz eta parez-pare ezar.

| | |
|---|---|
| **Lukas** | |
| **aita** | |
| **ama** | |
| **aitatxi** | |
| **amatxi** | |
| **hiru anaiak** | |

| | | |
|---|---|---|
| ama | amatxi | Lukas |
| aitatxi | | aita |
| | hiru anaiak | |

# Istorioaren ordena
## beste pertsonaien izenei jarraituz

Lukasek gurutzatu dituen pertsonaien etiketak istorioaren ordenaren arabera kola, ezker aldean kurtsiboan eta eskuin aldean eskriptoan.

| Idazkera kurtsiboa | Idazkera eskriptoa |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |

haur-jalea

haur-jalea

Erpurutxo

Pello

ahuntza

Txanogorritxu

Txanogorritxu

xerrikumeak

ahuntza

xerrikumeak

Erpurutxo

Pello

# Nor da mintzo ?

ikaslearen fitxak : 34.-37. or.

## Helburuak

Pertsonaiak, istorioko ordenaren arabera ezagutu.
Pertsonaien izenak idatzi.
Istorioaren perpaus batzuk irakurri eta idatzi.

## Zer jarduera ?

Ipuinean agertzen diren perpaus batzuk irakurri eta hauek erraten dituztenak parean kolatu edo idatzi.

## Nola egin ?

Lukasen familiatik abiatu.
Beste pertsonaietatik abiatu.

## Materiala

- Fitxak haur bakoitzarentzat (34. eta 36. or.)
- Perpausak erakusten dituzten afixak, arbelean emateko A3 formatukoa (35. eta 37. or.)

## Urraspidea

### 1 Lukasen familia... (ikus 34. eta 35. or.)

#### Talde lana

- Istorioaren hastapena (Lukas etxetik partitzen...) irakurriko du irakasleak (albumeko 8.-9. or.)
- Afixa (35. orrialdea, A3 formatukoa) erakutsiko haurrei die arbelean emanez.
- Afixako lehen perpausa : *“Zinez hire eskasa...”* irakaslearen laguntzarekin irakurtzen dute haurrek.
- Galde erantzunak :
  - *– Nork erraten du hori ?*
  - *– Amak.*
- Irakasleak haur bati galdeginen dio “Ama” izena kolatzea edo idaztea afixan.
- Horrela segi beste perpausekin.

#### Banakako lana

- Jarduera fitxa haurrei banatu bakoitzak bere lana egin dezan (34. or.).

### 2 Lukasek bere bidean gurutzatu dituen pertsonaiak... (ikus 36. eta 37. or.)

**(gaineko urraspideari jarraituz)**

- Irakasleak istorioa bere osotasunean irakurriko du (aitzineko aldean, Lukas eta bere familiakoen erranaldiak landuak izan ziren).
- 37. orrialdea, A3 formatukoa, arbelean eman.
- Gaineko urraspideari jarraitu.
- Etiketen bidez, pertsonaien izenak haurren eskuetan eman. Trebetasuna lortzen dutenean, haurrek izenak eskuz idatz ditzakete.

#### Banakako lana (36 .or., A4 formatukoa)

# Nor da mintzo?

## Lukasen familia

1) Horra Lukasen eta familia kideen solasak. Irakur eta solasa nork erraten duen idatz.

(A) "Zinez hire eskasa sentituko diat"

tristatzen da . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(B) "Agur, anaia, kanta dezagun!"

diote . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(C) "Har ezak ordulari hau",

dio . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(D) "Banekien egun hori noizbait gertatuko zela",

dio . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(E) "Handia naiz",

erraten die . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(F) "Ene biziko eguzkia haiz",

dio . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

2) Letra egokia eman 1, 2, 3... zenbakien parean istorioko ordenari jarraituz.

1 ◯ 2 ◯ 3 ◯

4 ◯ 5 ◯ 6 ◯

3) Etxetik abiatu baino lehen, Lukasek opari bat ukan du aitatxirenganik eta beste bat aitarenganik. Opari horiek marraz.

aitatxiren oparia

aitaren oparia

# Nor da mintzo?

## Lukasen familia

Arbelean handiturik ezartzeko fitxak

(A) “Zinez hire eskasa sentituko diat”

tristatzen da ..........................................

(B) “Agur, anaia, kanta dezagun!”

diote ..................................................

(C) “Har ezak ordulari hau”,

dio ......................................................

(D) “Banekien egun hori noizbait gertatuko zela”,

dio ......................................................

(E) “Handia naiz”,

erraten die ...........................................

(F) “Ene biziko eguzkia haiz”,

dio ......................................................

# Nor da mintzo ?

## Lukasek gurutzatu dituen pertsonaiak

**1) Solasa irakurri eta, erran duenaren izena idatz.**

(A) “Zuri esker haur-jaleak ez gaitu janen”,

erraten du .....................................

(B) “Amatxi sobera triste litzateke !”

erraten du .....................................

(C) “Hi ere nire zerrendan haiz”,

ihardesten du ................................

(D) “Utz gaitzazu bederen azken aldikotz kantatzera”,

otoizten dute ..................................

(E) “Bertzenaz janen ez zenituzkeenak ezin kontsolatuak lirateke”,

erraten du .....................................

(F) “Habil hemendik, ihizi tzarra !”

oihukatzen du ................................

**2) Erranaldiak ordena, letra egokia emanez zenbakien parean.**

| | | |
|---|---|---|
| 1 ◯ | 2 ◯ | 3 ◯ |
| 4 ◯ | 5 ◯ | 6 ◯ |

**3) Hiru xerrikumeen musika tresnak marraz.**

# Nor da mintzo ?

## Lukasek gurutzatu dituen pertsonaiak

Solasa erran duenaren izena idatz.

(A) “Zuri esker haur-jaleak ez gaitu janen”,

erraten du ..........................................

(B) “Amatxi sobera triste litzateke”,

erraten du ..........................................

(C) “Hi ere nire zerrendan haiz”,

ihardesten du ...................................

(D) “Utz gaitzazu bederen azken aldikotz kantatzera”,

otoizten dute .....................................

(E) “Bertzenaz janen ez zenituzkeenak ezin kontsolatuak lirateke”,

erraten du ..........................................

(F) “Habil hemendik, ihizi tzarra !”

oihukatzen du ...................................

# Idazkera kurtsiboan ageri diren pertsonaien izenak ezagutu

✐ ikaslearen fitxak : 39. eta 40. or.

## Helburuak

Pertsonaien izenak idazkera kurtsiboan baliatu.
Pertsonaien izenen irakurtzen trebatu.

## Zer jarduera ?

Pertsonaien izenak idazkera kurtsiboan irakurri, etiketak baliatuz eta ariketa grafikoak eginez.
Haurrek etiketak eginen dituzte 39. eta 40. orrialdeetako laukiluzeetan.

## Nola egin ?

Lukasen familiatik abiatu.
Beste pertsonaietatik abiatu.

## Materiala

– Etiketak (39. eta 40. orrialdeak baliatu)
– Fitxak haur bakoitzarentzat (39. eta 40. or. ikus)
– Afixak arbelean emateko (39. eta 40. or. A3 formatukoa)
– Feltroak

## Urraspidea

### 1 Lukasen familia... (ikus 39. or.)

#### Talde lana

- Etiketa bat erakutsiko du irakasleak eta galdeginen :
  – *Zer da idatzirik hemen ?*
- Haurrek erantzunen dute eta, beren ontzietan etiketa berdina bilatuko.
- Gauza bera pertsonaia guzientzat.
- Haurrek beren artean edo bat besteari :
  – *Zer da idatzirik hemen ?*

#### Banakako lana (39. or.)

- Haurrei fitxak eman eta elkarrekin ikusi (39. or.).
  – *Zer ikusten dugu fitxa honetan ?*
  – *Lukasen familiakoen izenak taula batean.*
  – *Behin bakarrik agertzen dira ?*
  – *Ez, behin baino gehiagotan.*
  – "*Lukas*" *izena bila ezazue eta erran iezadazue zenbat aldiz atzeman duzuen.*
  – *Lau aldiz.*
- Gauza bera beste pertsonaientzat.
  – *Izenak bila itzazue taulan eta kolore desberdinez ingura.*
- Adibide bat egin daiteke, denek elkarrekin arbeleko afixan.

### 2 Lukasek bere bidean gurutzatu dituen pertsonaiak... (ikus 40. or.)

**(gaineko urraspideari jarraitu)**

#### Talde lana (ikus 40. or. A3 formatukoa)

- Aitzineko urraspideari jarraitu.

#### Banakako lana (ikus 40. or. A4 formatukoa)

- Aitzineko urraspideari jarraitu.

# Idazkera kurtsiboan diren pertsonaien izenak ezagutu

## Lukasen familia

Taulako jendeen izenak argibideari behatuz ingura.



ARGIBIDEA

| | |
|---|---|
| "aita" urdinez. | "ama" gorriz. |
| "Lukas" berdez. | "aitatxi" horiz. |
| "amatxi" arrosa kolorez. | "hiru anaiak" laranja kolorez. |

| | | |
|---|---|---|
| aita | ama | Lukas |
| aitatxi | amatxi | hiru anaiak |
| ama | aitatxi | aita |
| Lukas | hiru anaiak | aitatxi |
| amatxi | aita | Lukas |
| aita | hiru anaiak | amatxi |
| ama | amatxi | hiru anaiak |
| aitatxi | Lukas | amatxi |

# Idazkera kurtsiboan diren pertsonaien izenak ezagutu

## Beste pertsonaiak

Taulako jendeen izenak argibideari behatuz ingura.



ARGIBIDEA

| | |
|---|---|
| "Erpurutxo" urdinez. | "Txanogorritxu" gorriz. |
| "haur-jalea" berdez. | "xerrikumeak" horiz. |
| "Pello" arrosa kolorez. | "ahuntza" laranja kolorez. |

| | | |
|---|---|---|
| Txanogorritxu | Pello | xerrikumeak |
| ahuntza | haur-jalea | Erpurutxo |
| Pello | ahuntza | Txanogorritxu |
| xerrikumeak | Erpurutxo | haur-jalea |
| Erpurutxo | txanogorritxu | Pello |
| haur-jalea | ahuntza | xerrikumeak |
| Erpurutxo | xerrikumeak | ahuntza |
| Txanogorritxu | haur-jalea | Pello |

# Lukasen zerrenda

✐ ikaslearen fitxak: 42. eta 43. or.

## Helburuak

Istorioa ulertu.
Pertsonaien izenak ezagutu.
Pertsonaien izenak irakurri eta idatzi.

## Zer jarduera?

Liburuaren estalgian agertzen den zerrenda edo ikaslearen fitxetan agertzen direnak irakurri eta landu, talde lana eta banakako lana antolatuz eta sustatuz.

## Nola egin?

Lukasen zerrendetatik abiatu:
- Aitak eman dionetik.
- Lukasek egin duenetik istorioaren bukaeran.

## Materiala

– Bi fitxa haur bakoitzarentzat
– Fitxa horiek berak, A3 formatukoak, arbelean emateko

## Urraspidea

### 1 Aitak Lukasi eman zerrenda (ikus 42. or.)

#### Talde lana

- Istorioa irakurri.
- Galde-erantzunak:
  – *Aitak zer eman dio Lukasi?*
  – *Zerrenda bat.*
  – *Zer da idatzirik zerrenda horretan?*
  – *Jateko gauza onen izenak.*
  – *Zer du gustukoa Lukasek?*
- Liburuaren estalgia hartu eta han agertzen den zerrendaren irakurtzen trebatu.
- 42. orrialdea A3 izarian arbelean eman eta Lukasek maite ez dituen janariak ingura.

#### Banakako lana (42. or. A4 formatukoa)

- Haurrei fitxak eman eta elkarrekin ikusi (42. or.).
- Galde-erantzunak egin orrialdearen ulertzeko.
- Ikaslearen fitxako ariketak egin.

### 2 Istorioaren bukaerako zerrenda.

#### Banakako lana (ikus 43. or. A4 formatukoa)

- Haurrei fitxak eman eta elkarrekin ikusi (42. or.).
- Galde-erantzunak egin orrialdearen ulertzeko.
- Ikaslearen fitxako ariketak egin.

# Lukasek aitarenganik ukan zerrenda

1) Lukasek zerrenda bat ukan du bere aitarenganik.
Aitaren zerrendan agertzen ez denik ba ote da ? Nor ?

ahuntza eta pitikak

amatxi

Txanogorritxu

hiru anaiak

hiru xerrikumeak

Pello

Lukasen aita

Erpurutxo eta haren anaiak

haur-jalea

2) Lukasek maite duena idatz ezazu.

.........................................................

.........................................................

.........................................................

.........................................................

.........................................................

.........................................................

.........................................................

# Istorioaren bukaerako zerrenda

**1) Ezkerreko eta eskuineko zutabeetako elementuak elkarlot.**

Lukasek, ahuntza eta bere pitikak •

Lukasek,Txanogorritxu •

Lukasek, hiru xerrikumeak •

Lukasek,Pello •

Lukasek, Erpurutxo eta haren anaiak •

Lukasek,haur-jalea •

• jan d(it)u.

• ez d(it)u jan.

**2) Lukasek jan duen bakarra marraz.**

# Lukas mintzo...

✐ ikaslearen fitxak : 45.-49. or.

## Helburuak

Perpausen irakurtzen eta idazten trebatu.
Aireko kakotxen (“ … “) balioa ulertu.

## Zer jarduera ?

Etiketak taldean manipulatu Lukasen solasaldien sailkatzeko. *Nori erran dituen* irizpideari jarraiki. Beste sailkapen bat egin ipuineko beste pertsonaien solasekin.

## Nola egin ?

Pertsonaia bakoitzaren erranak irakurri.
Nork zer erraten duenari ohartu.
Atzeman solaskide bakoitzari Lukasek erran dion azken perpausa.

## Materiala

– Fitxak haur bakoitzarenzat
– Etiketak arbelean ezartzeko
– Perpausen etiketak haur bakoitzarenzat

## Urraspidea

### 1 Lukasen aipamenak eta honen solaskideak...

#### Talde lana (ikus 46., 47., 48. eta 49. or.)

- Irakasleak ipuinetik pasarte batzuk irakurriko ditu.
- Lukasek solaskide bakoitzari bota dion azken erranaldiaren atzemaitea proposa dezake irakasleak.
- Galdeak eta erantzunak :
  - *Lukasek nori erraten dio : “Zoazte hemendik ni xedez aldatu aitzin...” ?*
  - *Xerrikumeei.*
  - *Lukasek nori erraten dio :“Aitatxiri ez zaio sekula desobeditzen...” ?*
- **Etiketen lehen manipulazioa** (ikus 46.-47. or.): Lukasen erranaldiekin eta kondairako pertsonaiekin etiketak eginen dira. “*Nori erran du erranaldi hau”* irizpideari jarraituz etiketen sailka pena eginen da taldean.
- **Etiketen bigarren manipulazioa** (ikus 48. or.) : Bost talde eginen dira ikasgelan eta 48. orrialdea banatuko da (bat taldeka). Etiketa guziak moztuko dituzte ikasleek eta ondotik, Lukasen erranaldi oso bat osatu beharko dute taldeka.

#### Banakako lana (45., 46. eta 47. or.)

- Haurrei fitxak (46.-47. or.) eman eta lehen begirada egin elkarrekin.
- Haurrak utzi banakako lanaren egiten.
- Berdin egin daiteke 45. orrialdearekin.

### 2 Beste pertsonaiek egin solasaldiak... (ikus 49. or.)

#### Talde lana (ikus 49. or. A3 formatukoa)

- Irakasleak ipuinetik pasarte batzuk irakurriko ditu.
- *Nork zer erraten duen* bilatuko dute haurrek irakaslearen laguntzarekin.
- 50. orrialdeko etiketak moztu.
- Irakasleak pertsonaien aipamenak dituzten etiketak elkarrekin emanen ditu. Pertsonaien izenekin berdin eginen du. Beraz bi multzotan eginen dira.
- Etiketa bat irakurri elkarrekin eta solasa norena den atzeman.

# Lukasen solasak

1) Nori zuzentzen dizkion adieraz.

(A) "A ! Zorte oneko eguna duzue. Eskapa zaitezte fite !"

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(B) "Zoazte hemendik ni xedez aldatu aitzin,"

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(C) "Ongi pentsatuz, ez naiz aski gose."

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(D) "Habil fite hemendik ni ideiaz aldatu aitzin !"

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

(E) "Aitatxiri ez zaio sekula desobeditzen, entzun duka ?"

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

2) *Gaineko erranaldiak ordenatu ipuinaren arabera.*

1) 2) 3)

4) 5)

3) Lukasek deus ez dio erran haur-jaleari baina honek Lukasi zerbait erran dio.
Solas hori aurki eta idatz.

.....................................................................................................................................................

# Lukasen solasak

**1) Lukasek erran dituen solasen etiketak aurki eta solaskidearen ondoan kola.**

Ahuntzari eta haren pitikei :

Txanogorritxuri :

Xerrikumeei :

Pellori :

Erpurutxori :

# Lukasen solasak

## Handitu behar diren etiketak

“A ! Zorte oneko eguna duzue ! Eskapa zaitezte fite !”

“Zoazte hemendik ni xedez aldatu aitzin.”

“Ongi pentsatuz, ez naiz aski gose.”

“Habil fite hemendik ni ideiaz aldatu aitzin !”

“Aitatxiri ez zaio sekula desobeditzen, entzun duka ?”

# Etiketak

| | | |
|---|---|---|
| “A ! | Zorte | oneko |
| eguna | duzue ! | Eskapa |
| zaitezte | fite !” | |

| | | |
|---|---|---|
| “Zoazte | hemendik | ni |
| xedez | aldatu | aitzin.” |

| | | |
|---|---|---|
| “Ongi | pentsatuz, | ez |
| naiz | aski | gose.” |

| | | |
|---|---|---|
| “Habil | fite | hemendik |
| ni | ideiaz | aldatu |
| aitzin !” | | |

| | | |
|---|---|---|
| “Aitatxiri | ez | zaio |
| sekula | desobeditzen, | entzun |
| duka ?” | | |

# Lukasen familiakoak mintzo...

Solasa eta erran dituena elkarlot, aldi guziez kolore bat hautatuz.

| | |
|---|---|
| “Ene biziko eguzkia haiz” | Aitatxi |
| “Agur, anaia, kanta dezagun !” | Amatxi |
| “To, horra jateko on dituzkanen zerrenda.” | Lukas |
| “Hi ere ene zerrendan haiz,” | Aita |
| “Ea horrela ahanzten dugun dugula elkar utziko !” | Hiru xerrikumeak |
| “... eta horra nire anaiak.” | Pello |
| “Nor haiz, hi ?” | Erpurutxo |
| “Har ezak ordulari hau,” | Anaiak |

## Otso bihozbera

# CE mailako irakurketa-fitxak

Armelle Jouanigot, Kristen Prad

# Albumaren azala

ikaslearen fitxak : 53., 54. or.

## Helburuak

Album hau liburuen munduan koka ahoz, ikasgela osoarekin.

## Nola egin ?

### 1 Liburuaren azala landu

✓ **Galde erantzunak**

- *Zer liburu mota da ? Komikia ?*
- *Albuma da.*
- *Egiazko istorioa da ala asmatua da ?*
- *Asmatua da.*
- *Zer izenburu du ?*
- *Otso bihozbera.*
- *Nork du istorioa idatzi ? (Idazlea nor da ?)*
- *Geoffroy de Pennart.*
- *Norentzat idatzi du ?*
- *Auguste-rentzat. (Idazlearen lagun bat ote da ?)*
- *Nork egin du marrazkia ? Marrazkilaria nor da ?*
- *Geoffroy de Pennart.*
- *Argitaletxea zein da ?*
- *IKAS.*

✓ **Azaleko hitzen ulertzeko**

Titulua, idazlea, marrazkilaria, argitaletxea... hiztegi bat baliatuz, hitz horien erranahia ulertu eta ordena alfabetikoan idatzi.

### 2 Animalien mundua ezagutu

✓ **Ipuineko animaliez**

- Ipuinean aipatzen diren animalien ezagutza egin eta zein orrialdetan kokatzen diren ikusi.

✓ **Animalien kondaira ezagunak**

- Ipuinean aipatuak diren animalien kondairen inguruan ikerketa bat egin eta liburutegian aurkitu.
  *Ahuntza eta zazpi pitikak, Hiru xerrikumeak, Pello eta otsoa, Txanogorritxu, Erpurutxo.*
- Ipuin horien istorioaz oroitu.

# Otso bihozbera

**Albumaren azala**

